

Eta loteria tokatuko balitzait?

IKASBILetik hartua eta IKAn moldatua

Gabonak ate joka ditugu eta, horrekin batera, urtero errepikatzen den fenomenoak: loteria. Badirudi loteriak ez duela krisia sufritzen eta jendeak berdin-berdin jarraitzen duela jokatzeko.



Ariketa honetan, loteriaren inguruan arituko gara eta horretarako:

- Gaia girotzeko, loteriaren historia ezagutuko duzue.
- Bideo bat ikusi eta testuan falta diren zatiak bere lekuan jarriko dituzue.
- Bideoan agertu diren esaldi batzuk euskaratuko dituzue.
- Hipotesiak egingo dituzue.

1. Ba al zenekien...?

San Ildefonso ikastetxeko haurrak oso famatuak dira, batez ere Gabonetan egiten den zozketari esker. Baina ba al dakizu zenbat denbora pasa den lehenengo saria kantatu zutenetik?

Loteriaren historian atzera egingo dugu... 1771ko martxoan kantatu zituen lehen aldiz San Ildefonso ikastetxeko ume batek Gabonetako loterian saritua izan zen zenbakiaren zifrak. Diego Lopez izena zuen eta zazpi urte zituen.

Geroztik, urtero, kantatu izan dituzte. Hasiera batean bakarrik mutilek, baina 1984tik aurrera neskek ere parte hartzen hasi ziren. Argi eta garbi dago abenduaren 22an, sariaren irabazleak ez ezik, San Ildefonso ikastetxeko haurrak protagonista nagusi bihurtu direla.

2. Testua osatzen

Ikusiko duzun bideoak loteriari buruzko datu batzuk ematen ditu. Bideo horren transkripzioan, zenbakiakin lotutako zatiak kendu ditugu. Bideoa ikusi eta, bitartean, falta diren datuak bere tokian jarri.



<https://labur.eus/0AtFa>

70 milioi gehiago banatuko dira sarietan	208 milioi euro gastatuko dugu
5 milioi dezimo gehiago salduko dira	71 biztanle bakoitzeko
%13 egin du gora salmentak	100.000 zenbaki zozketatzen dira

AHOTSA. Loteria-ontziak dagoeneko Real Antzokian daude, Madrilen. Bi dira: zenbakiak gordetzen dituen ontzia eta bere anai txikia, sariak hartzen dituena. _____ aurten, baina _____ eta, antza, dena da beharrezkoa.

LOTERIA SALTZAILEA. Se ha vuelto a vender...

AHOTSA. Eta gurean ere datuek hori berori diote. Astebete falta arren zenbakien arabera, Hego Euskal Herrian . _____, batez beste, . _____ . Gehien gastatuko dutenak bizkaitarrak izango dira, ia 92 euro bakoitzak. Askok? Gutxi? Hori zaila da esatea.

HERRITAR GIZONEZKOA. Bueno...

AHOTSA. Eta are gehiago, familia osoari erosi nahi badiogu.

HERRITAR EMAKUMEA. Procuro dar...

AHOTSA. Aurten iaz baino _____, guztira 680 milioi. Baina astebete itxaron beharko dugu. Gaur zortzi jakingo dugu zer zenbakiri egokituko zaion sari nagusiko bola hau.

3. Nola esango zenuke?

Bideoaren bukaeran, gizon eta emakume batek loterian jokatzen dutela esaten dute, baina gaztelaniaz hitz egiten dute. Nola esango zenuke euskaraz horiek esan dutena? Idatzi zure bertsioa.

HERRITAR GIZONEZKOA.

Bueno, más de lo que quieres.

HERRITAR EMAKUMEA.

Procuro dar a todos los hijos; tengo nueve.



4. Eta hemen tokatzen bada?

Komentatu loteriaren inguruko hurrengo galderak:

- Zuk edo zure ingurukoek jokatzen al duzue loterian?
- Zenbat diru? laz baino gehiago jokatu duzue aurten?
- Beste norbaitekin partekatzen duzue erosten dituzuen dezimoak?
- Inoiz tokatu al zaizue ezer zozketaren batean: kiniela, bonoloto...?
- Ezagutzen duzue inor tokatu zaiona?
- Dirua edo osasuna hobe?

5. Loteria irabaziko banu...



Imajinatu aurten zuk loteria irabazten duzula. Zer egingo zenuke sariarekin?

Hona hemen adibide bat:

Nik loteria irabaziko banu, Karibera joango nintzateke familiarekin, 5 izarreko hotel batera.

Zuzenketa-orria

2. Testua osatzen

AHOTSA. Loteria-ontziak dagoeneko Real Antzokian daude, Madrilen. Bi dira: zenbakiak gordetzen dituen ontzia eta bere anai txikia, sariak hartzen dituena. **100.000 zenbaki zozketatzen dira** aurten, baina **5 milioi dezimo gehiago salduko dira** eta, antza, dena da beharrezkoa.

LOTERIA-SALTZAILEA. Se ha vuelto a vender....

KAZETARIA. Ezin esan loteria krisian dagoenik. Entzun bestela ondoko datua: azken 3 urteetan **%13 egin du gora salmentak** estatuan.

AHOTSA. Eta gurean ere datuek hori berori diote. Astebete falta arren zenbakien arabera, Hego Euskal Herrian **208 milioi euro gastatuko dugu**, batez beste, **71 € biztanle bakoitzeko**. Gehien gastatuko dutenak bizkaitarrak izango dira, ia 92 euro bakoitzak. Asko?, gutxi?, hori zaila da esatea.

HERRITAR GIZONEZKOA. Bueno, más de lo que quieres.

AHOTSA. Eta are gehiago familia osoari erosi nahi badiogu.

HERRITAR EMAKUMEA. Procuro dar a todos los hijos; tengo nueve.

AHOTSA. Aurten iaz baino **70 milioi € gehiago banatuko dira sarietan**, guztira 680 milioi. Baina astebete itxaron beharko dugu. Gaur zortzi jakingo dugu zer zenbakiri egokituko zaion sari nagusiko bola hau.

3. Nola esango zenuke?

HERRITAR GIZONEZKOA.

Bueno, más de lo que quieres.

Bueno, nahi baino gehiago.

HERRITAR EMAKUMEA.

Procuro dar a todos los hijos; tengo nueve.

Saiatzen/Ahalegintzen naiz seme-alaba guztiei ematen; bederatzi ditut/dauzkat